

17/2019 AKTA

2019ko urriaren 9an, eguerdiko 12:00tan, Gasteizen elkartu da **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aurretik deialdia eginda, eta gai-zerrenda hau jorratu da:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea.
3. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari informazio eskabideak: 2019/000212 Espedientea.
4. Eskaerak eta galderak.

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

BATZORDEKIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.

• **2019/000173 espedientea ebazteko proposamena**

Jarraian batzordeburuak proposamena egin duen batzordekideari eman dio hitza. Proposamen hori aurretiaz bidali zaie Batzordeko kideei, azter dezaten. Aztertu ondoren aho batez onartu da Batzordearen 67/2019 Ebazpenaren bidez.

2. Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea

Jarraian batzordeburuak ebatzi gabe dauden espedienteak esleitu dizkie batzordekideei; hona esleipenak:

2019/000218	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari
2019/000219	Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andreari
2019/000229	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari
2019/000231	Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andreari



3. Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari informazio eskabideak:
2019/000212 Espedientea.

2019/000212 espedienteari buruzko eskaera ez da erreklamazio bat, baizik eta espedienterako sarbidearen eskabidea interesatuaren ordezkari bezala. Eskaeran espediente-zenbakia ez zegoen, bakarrik aipatzen zen Euskotren-ari buruzko informazioa zela. Irailaren 26an erantzuten zaio, interesatu moduan, eta 57/2018 Erabakiren bitartez ebatzitako 2018/000123 espedientearen dokumentazioa bidaltzen diogu. Dokumentazio berbera Auzitegi eskudunari igorri zitzaion. Hala ere, dokumentazioaren jaso eta gero eskatzaileak komunikatu digu aipaturiko erreklamazio-espedientea ez dela, baizik eta 2018/00088 espediente-kodea daukana. Hala ere, Batzorde honek ez du aipaturiko kodearekin inongo erreklamazio espedienterik erregistratuta, hori dela eta, sarbidea posiblea ez dela komunikatuko zaion.

4. Eskaerak eta galderak

Ez da egon eskaerarik ez galderarik; beraz, batzordeburuak amaiera eman dio bilerari 13:30tan.

Idazkaria

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Batzordekidea

María Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal jauna